

JONNY MOON

ZAKAR ALIENAK


GARATXO OPERAZIOA



desclée







**Aspaldi, galaxia
urrun batean,
estralurtar lerdetsu
batzuek energia-iturri
berriztagarria eta
garbia aurkitu zuten:
mukia!**


(Tira, garbia-edo...)

**Arazo bat besterik ez zegoen:
mukirik onena izaki mota jakin
batek sortzen zuen.**

Gizakiak.

**Baina gizakiak oso ezohikoak
ziren inguru haietan. Hori horrela, urte gutxian, beren
eguzki-sistemako mukirik hoberena erabat agortu zuten
estralurtarrek.**

**Orduantxe sortu zen ZAKAR: Ziberespazioko
Estralurtar Arrotz eta Krakatsuen Armada.
Eginkizuna: gizakiak aurkitzea eta muki guzti-guztiak
lapurtzea. Horretarako, espazio-ontziak bidali
zituzten unibertsoaren lau bazterretara, barnean
estralurtarren arraza nagusien ordezkariak zihoazela.
Espazio-ontzietako hiru betiko galdu ziren. Baina bat
gizakiz betetako planeta batean lurreratu zen.**



Hemen



1. A+ALA

Beste edozein larunbat bezala hasi zen hura ere, baina Jack Bradyk ez zekien asteburu horretantxe hasiko zela nekez ahaztuko zuen abentura.

Patuak gauza garrantzitsuak ekarriko zizkiola imajinatu ere egin gabe, Jack esnatu egin zen, komunera joan, aurpegia eta eskuak garbitu, eta hortzak eskuilatu zituen. Bederatzi urteko mutil garbia zen Jack.



Argia ere bazen. Jenio bat, egia esan. Baina kontua zen beste inor ez zela horretaz ohartzen.

Eskolan errieta egiten zioten ariketa-liburuetan bere azken asmakizunen marrazkiak zirriborratzeagatik. Etxean, berriz, amak behin eta berriro agintzen zion logela txukuntzeko. Hala ere, barren-barrenean Jackek bazekien egunen batean bere bikaintasuna aitortuko ziotela; denbora kontua besterik ez zen.


Betaurrekoak jantzi, eta ohar-taulan txintxeta batez zintzilikatutako “EGITEKOEN ZERRENDAA” irakurri zuen.

1. TXAKURRENTZAKO

URPEKARI-JANTZIA BUKATZEA.

2. OGI TXIGORTUAK GURINEZTATZEKO
MAKINAREN PROIEKTUA LANTZEA.


3. MUNDUKO ENERGIA ARAZOAK
KONPONTZEA (OGITARTEKOAK
BAINO LEHEN, TARTERIK BADA).



Burua astindu zuen aspertuta. Ez zegoen modurik zerrendako hirugarren zereginaz arduratzeko. Egunak ez zuen behar beste ordu!

Oskarrek, Jacken lagunik onenak, Jack jenioa zela uste zuen. Oskar Jack baino altuagoa zen, eta ausartagoa eta ederragoa ere bai, baina ez zen inolaz ere bera baino argiagoa. Egia esan, Jackek batzuetan bere buruari galdetzen zion Oskar ez ote zen apur bat ergela izango. Nolanahi ere, oso ausarta zen Oskar: prest egoten zen beti Jacken azken asmakizunen talka probetarako panpina izateko.

Oskarri buruzko gogoeta horiek buruan zituela, Jackek kopeta zimurtu, eta ordulariari begiratu zion. Larunbat goizeko zortziak ziren puntu-puntu. Oskarrek hantxe behar zuen harrezkero. Haur gehienek, aste luze eta aspergarri bat eskolan eman ondoren, nahiago izaten zuten larunbat goizean ohean alferkerian geratu. Baina Oskar oso bestelakoa zen. Ez zitzaion batere gustatzen asteburuko minutu bakar bat ere galtzea.



Normalean, Jack baino lehenago jaikitzen zen, abentura berriak prestatzen hasteko. Beraz, non ote zegoen?

Oskarren etxeko lorategiak Jacken lorategira ematen zuen, eta hantxe zuten bi lagunek haien gordelekua: Oskarren lorategiaren atzealdeko zuhaitzaren adarretan finkatutako etxola. Jacken logelatik Oskarren etxea ikusten zen.

Jackek leihoa ireki zuen.

KLANK!

—Ai! —oihukatu zuen Jackek.



—Barkatu! –ahots batek barkamena eskatu zion pareko zuhaitz-etxetik.

Oskarrek jaurtitako objektua Jacken ilaje harrotuan galdu zen. Mutilak eskuarekin hartu, eta arretaz aztertu zuen. Txikia eta oboidea zen, eta oso gogorra.


—Zergatik bota didazu ezkur bat? –galdetu zion.

—Txintxarririk aurkitu ez dudalako! –esan zion Oskarrek, erantzuna agerikoa balitz bezala—. Tira –jarraitu zuen ezinegonez—, jaitsi zaitez ur-hoditik eta has gaitezen behingoz.

Jackek burua leihotik atera, eta susmoz beterik begiratu zion teilatuan behera zihoan hodiari.

—Noiztik jaisten naiz ni hodietatik? –galdetu zuen.

—Noizbait hasi beharko duzu gauza berriak probatzen –erantzun zion Oskarrek irribarretsu—. Neuk egingo nuke.



Jakina baietz!, pentsatu zuen Jackek berekiko, Zuk burua labean sartuko zenuke piztuta ote dagoen ziurtatzeko.

—Berehala jaitsiko naiz —hitz eman zion Jackek, eta leihoa itxi zuen.

Biderik seguruena hartu zuen: eskailerak. Sukaldea lasterka zeharkatu, eta lorategira atera zen azkenean. Bi lagunak lorategiak bereizten zituen hesiaren zuloatik igaro, eta zuhaitzaren enborrean iltzatutako zurezko eskailerak igo zituen.

Mutilen zuhaitz-etxea aparta zen. Oskarren aitak irabazi zuen herriko egunkariko lehiaketa batean. Egia esan, estalpe txiki bat besterik ez zen, zuhaitzera garabi baten bidez igo eta adarretara tinko lotu zutena. Aurrealdean portxe txiki bat zeukan, eta barnean, berriz, bi leiho eta Jackentzako lan-mahai bat, hantxe bururatzen baitzitzaizkion ideiarik hoberenak.

Zalantzarik gabe, hura zen herriko zuhaitz-etxerik bikainena.

Jackek puf batean etzanda aurkitu zuen laguna, bularraldean jarritako patineteari helduta. Oskarrek hasperen ozen eta gehiegizko batekin egin zion harrera. Jack, zuhaitz-etxeraino egindako korrika saioaren ondorioz, arnasestuka zetorren.

—Arratsalde on —hasperen egin zuen Oskarrek.

—Oso barregarria... —esan zion Jackek.

Oskar beti zebilen berdin: dena berehala egin beharra zegoen. Jacki, ordea, iruditzen zitzaion benetan merezi zuen edozertarako plangintza eta prestakuntza egokiak behar zirela. Baina Oskarri, ez; dena delakoa di-da egiten ez bazen, ez zen batere interesgarria.

—Hortaz, zein da plana? —galdetu zuen Jackek, eta beste puf batean eseri zen.

—Amak hau oparitu dit —esan zion Oskarrek, eta patinetea altxatu zuen—. Baina ez dabil behar bezain azkar —eta apur bat agondu ondoren, begirada basatia bota zion Jacki.



—Hortaz, zera pentsatu dut: agian zuk suziri batzuk gehitu ahal dizkiozu, edo horrelako zerbait...

Jackek tinko begiratu zion.

—Zure patinetean suziriak jartzea nahi duzula? Zertarako? Salto egitean orbitatik ateratzeko?

Oskar lagunak esandakoari buruz pentsatzen jarri zen bi segundoz.

—Halakorik egin dezakezu? –galdetu zion.

—Baita zera ere! –esan zion Jackek irmo—. Zuretzat oso dibertigarria izango da ziztu bizian adreiluzko hormen kontra talka egitea, baina nik nahiago dut denbora nire tramankuluak lantzen eman.

Zutitu, eta bere lan-mahaira hurbildu zen, non garatzen hasitako hainbat proiektu zituen. Txakur formako gomazko jantzi bat hartu zuen, bizkarraldean zilarrezko bi hodi zituen.



—Ezetz asmatu zer den hau! —esan zion harro—. Txakur batentzako urpekari-jantzia da.

Horri esker, gizakiaren lagunik onenak ez du uretatik kanpo geratu beharko jabea urpekaritza egitera joaten denean.

—Zuk ez daukazu txakurrik —zuzendu zion Oskarrek.

—Hala da, bai —onartu zuen Jackek—, baina bat izan nahiko nuke.

—Gainera, zuk ez duzu urpekaritzarik egiten —jarraitu zuen Oskarrek.

—Zera... egia da. Baina...

—Gustatuko al litzaizuke?

Jackek begirada makurra bota zion Oskarri.

—Ez, egia esan —aitortu zuen azkenean—. Arriskutsu samarra dirudi.


Oskarrek hasperen egin zuen berriro. Arriskurik ez bazegoen, orduan zertarako egin?

—Zer beste daukazu? Biok dibertitzeko moduko zerbait izango duzu, ezta?

—Heli-frisbia daukat —eskaini zion Jackek—. Nazkatuta nengoen frisbi bat zuzen jaurtitzen

ez nekielako. Horregatik, nik ere erabiltzeko moduko bat diseinatu nuen.

Jackek prototipoa erakutsi zion lagunari: frisbi arrunt bat zen, baina diskoaren erdialdean helikoptero baten helizeak zituen.



—Urruneko kontrola dauka —azaldu zion.

Oskar salto batez jaiki zen.

—Mundiala! Goazen parkera. Nire patinetea hobetu dezakezu eta, gero, urruneko kontroleko frisbia probatuko dugu. Ados?

Jackek baiezkoa egin zion buruaz, baina arduratuta begiratu zion Oskarri leihotik behera jaisteko asmotan ikusi zuenean.

—Zertan ari zara? —galdetu zion.

Oskar jiratu, eta irribarre egin zion.

—Ez zara ideia bikainak dituen bakarra.

Pentsatu dut larrialdietako irteera bat izan beharko genukeela; hortaz, tirolina hau jarri dut. Jackek, orduan, zuhaitz-etxetik Oskarren etxeraino luzatutako kablea ikusi zuen.

Jack liluratuta zegoen ikuskizunarekin:
Oskarrek mosketoia kableari lotu, eskuekin
sokari helduz abiada hartu, eta tirolinan behera
irristatu zen.

Alabaina, Jackek, kablea non bukatzen
zen ikustean, kalkulu azkar bat egin zuen
buruaz. Laguna ohartarazten saiatu zen, baina
beranduegi zen.

KANKA! Oskarrek sekulako kolpea hartu zuen
bere etxeko paretaren kontra, eta lorategiko
putzu batera erori zen.

—Ukitu tekniko batzuk, eta prest egongo da
—esan zuen Oskarrek marmarka, lokatz putzuan
irristatu eta berriro erori baino lehen.



2. ATALA

Jackek tranpolin inprobisatuari azken ukituak eman ondoren, zutitu, eta eskuak igurtzi zituen harro. Parkerako bidean bildutako ohol eta adreilu batzuekin, jauzi-ohol gisako bat prestatu zuen parkeko aldapa pikoenaren bukaeran.

Jackek gailurrera begiratu zuen, han baitzegoen Oskar irteteko keinuaren zain. Oskarrek besoak astindu zituen hasteko irrikaz.

Ez da ondo aterako, pentsatu zuen Jackek.

Oskarri behin eta berriro ohartarazi behar izan zion hobe zuela babesgarriak jantzi. Oskarrek, nola ez, ez zeukan halakorik, eta Jackek berak egin behar izan zizkion, aurretik landutako diseinu batzuetan oinarrituz. Flotagailu batzuk egokituz, belaunetarako eta ukondoetarako babes puzgarriak prestatu zizkion. Hala, Oskarrek, gailurrean zutik, telebista-programa zahar batetik ateratako heroi baldarra zirudien, beso-zangoetan Jacken babesgarriak zituela eta buruan, berriz, kokotsera soka batzuen bidez lotutako segurtasun-kasko horia.

Oskarren oinetan suziri-patinetea zegoen. Etxetik atera aurretik, Jackek bi limonada botila zahar aurkitu zituen bere “Gauza erabilgarriak” izeneko kutxan, eta patinetearen alde banatan lotu zituen irmo.

Oholaren erdian, berriz, hankako puzgailu zahar bat zegoen, gomazko bi hodiren bidez erregai-tankeetara lotua.

—Ekin! —oihukatu zion Jackek, aldaparen bukaeran txakur paseatzailerik edo bestelakorik ez zegoela ziurtatu ondoren.

Oskarrek bere indar guztiaz eragin zion puzgailuari eskuineko oinaz, eta botilak airez betetzen hasi ziren. Airea sartu ahala, botilen plastikoa tenkatuz joan zen. Oskarrek hankako puzgailuari eragin eta eragin jarraitu zuen. Azkenean, lortuko zuen ba! Jacken kalkuluak okerrak baziren, plastikoa lehertu, eta Oskarrek ipurdikoa hartuko zuen (beste batzuetan bezala). Baina, Jackek egindako lana zuzena bazen, botilen lepoan sartutako kortxoak ziztuan aterako ziren, pistola bateko balak bezala, patinetea (eta Oskar) abiadura bizian bultzatuta.

PLOP! Bi kortxoak batera atera ziren, eta Oskarren suziri-patinetea estreinakoz martxan jarri zen.

Oskar ziztu bizian zihoan aldapan behera, besoak zabal-zabalik oreka mantentzeko. Hasierako bultzadari esker, ohiko abiadura

baino handiagoa hartu zuen, eta patinetea
bidean behera irristatu ahala, abiadura
handituz zihoan.

Oskarrek oihu egin zuen, pozak edo ikarak
(edo bien arteko nahasketak) eraginda. Abiada
handiena hartu zuenean, jauzi-oholera
iritsi zen.



Airean atera zen bortizki, eta besoak atzera eramane zituen, Neguko Olinpiadetako eski-jauzietan bezala. Jackek, aldi berean lilura eta harrotasuna sentituz, Oskar hegan ikusi zuen une loriatsu batez. *Funtzionatu du!*, pentsatu zuen.

Baina, berehala, bestelako pentsamendu bat etorri zitzaion burura: eta, lurreratzea?

Orduantxe, grabitatea esnatu, eta Oskarrekin gogoratu zen. Jackek begiak estali behar izan zituen laguna lurrerantz amildu zenean. Zorionez, sasi batzuetan lur hartu zuen, eta eskolako gimnasioko koltxonetek bezala, inpaktua leundu zuten.

Tamalez, arrosa-sasiak ziren.

—Ai! —kexatu zen Oskar arantzak ipurditik ateratzearekin batera. Baina, berehala, honela esan zuen pozarren—: Hara! Mundiala izan da, ezta?

—Ez al duzu inoiz ikasiko? —galdetu zion Jackek sasien artetik ateratzen laguntzen ziola.

—Normala da kolperen bat hartzea horrelakoak egitean —esan zuen Oskarrek irribarretsu—. Baina kankarrekoaren aurreko unea... aparta izan da!
Oskarrek arropako hautsa kendu, eta ohartu zen beso-babesgarrietako bat lehertu egin zela kolpearen ondorioz.

—Eta zure babesgarriak bikainak dira.
Babesgarri hustuak eta kaskoa kendu, motxilan sartu, eta Jackengana jiratu zen.
—Zure frisbia probatuko al dugu?



Oskar sasien artetik ateratzen ari zela, urtxintxa gris bat hurbildu zen ondoko bidera. Mutilak, ordea, ez ziren jabetu animalia han zela. Izan ere, urtxintxari erreparatu izan baliote, berehala ohartuko ziren urtxintxa hura bitxi samarra zela.

Gainerako urtxintxak bezala zuhaitzen arteko bideetan barrena saltoka ibili beharrean,



tente-tente zegoen eserita,
ingurua arretaz aztertzen
ariko balitz bezala,
aparkalekuetako
kamerek egiten
duten moduan. Eta
bazen horretarako
azalpen on bat:
aski zen urtxintxaren
begietara begiratzea
kamerak zirela konturatzeko.



Urtxintxa robot misterioitsua aurrerantz
mugitu zenean hobeki ikusteko, burrunba
mekaniko bat entzun zen. Gero, parkea
eskaneatu, eta zooma handitu zuen mutilak
zeuden lekurantz, ordurako urrutiko kontroleko
jostailuarekin ari baitziren.

Bien bitartean, gizon batek arretaz aztertzen
zituen urtxintxa-kamerak bere ordenagailura
igorritako irudiak.

Mutil horiek al ziren bilatzen zituenak?
Ausartak ziren, zalantzarik ez zegoen, eta inozo

samarrak ere bai. Hain zuzen ere, kide berriei eskatzen zizkien bi ezaugarriak. Urtxintxari agindua eman zion: *mutiletan fokatu. Jarrai iezaiezu...*



Heli-frisbiak sekulako arrakasta izan zuen. Ezin hobeki zebilen hegan. Bi mutilak txandaka aritu ziren urrutiko kontrolarekin: frisbi hegalaria beherantz amiltzen zuten, ia-ia lurzorua ukitzeraino, eta, orduan, zeruraino bidaltzen zuten berriro. Halako batean, urrutiko kontrola Oskarren eskuetan zegoela, frisbiak mutilen jarduerarekin liluratuta zirudien urtxintxa handi bat jo zuen ia. Tramankulua animalia gaixoarengana zihoan zuzenean, baina urtxintxa tente-tente geratu zen estatua bat bezala, gailuari begira.

Azken unean, Jack moldatu zen animalia bidetik kentzeko, jostailuak burua moztu ez ziezaion.



Interesgarria, pentsatu zuen behatzaileak bere ezkutalekuan. *Oso interesgarria*.

—Ez, ez eta EZ! —oihukatu zuen Jackek bat-batean.

Oskarrek berehala begiratu zion, izututa.

—Zer duzu? —galdetu zuen.

—Heli-frisbia! —erantzun zion Jackek.

—Bai, jakina heli-frisbia dela!

—Ez, zera esan nahi dut: altuegi joan da! —azaldu zion Jackek—. Altuegi joaten bada, urrutiko kontrolaren irismenetik kanpo geratuko da, eta orduan...

Oskarrek kopeta zimurtu, eta urrutiko kontrola astintzen hasi zen.

—Ez du erantzuten!

Jackek hasperen egin zuen:

—... ezin izango dugu heli-frisbia kontrolatu.


Kontrolak hartu, eta eragin zien, baina alferrik.

Mutilek etsita ikusi zuten heli-frisbia Oskarren kolpea leundu zuten sasien gainetik urruntzen.

—Itxaron hemen gauzak zaintzen –agindu zion Jackek, eta lasterka urrundu zen.



Frisbiari jarraituz, Jackek parkeko hesia inguratu, eta lorategietara ematen zuen irekigune bat aurkitu zuen. Mutikoa jostailuaren atzetik zihoan, ahaleginak eginez bidetik ez ateratzeko, ez baitzituen loreak hondatu nahi.



Arreta guztia jostailuan jarria zuenez, ez zen ohartu ere egin urtxintxa robotak jarraitzen ziola, ibilbide zuzenagoa hartuz lore-sailen artetik.

Heli-frisbia altuera galtzen hasi zen, hain zuzen ere lorategiaren beste aldeko hesitik hurbil. Jack hesiaren beste irekigune batetik igaro zen, baina bat-batean geratu behar izan zuen. Aurrean hiruzpalau haur aurkitu zituen, bera baino zaharragoak. Bizkarra ematen zioten, baina Jack kezkatu egin zen haien jarrerarekin. *Zeri begira ote daude?*, galdetu zion bere buruari. Orduan, haietako bat mugitu, eta Jackek aukera izan zuen haien arreta erakarri zuen objektua ikusteko.

Jacken adineko neska bat zen. Berak ez zekien askorik neskei buruz, normalean ez baitzen haiekin gehiegi nahasten. Ez zitzaizkion batere interesatzen haien elkarrizketak: mutilen musika taldeak, moda, ponneyak... Eta, aurrean zuen neska hark ezagutzen zituen neskak bezalakoa zirudien.

Ile luzea zuen, beltz-beltza, motots batean bildua. Larruazala, berriz, iluna, eta begi urdin argiak. Balleteko jantzi arrosa zerman soinean... Nola esaten zaio? Tutua? Janzkera berezi eta ezohiko horrek erakarri zuen neska-mutilen arreta.

—Zeinen jantzi polita —esan zion ume helduetako batek. Jackek berehala ezagutu zuen: Jessica zen, ondoko herri bateko neska sendo bat. Jack eta Oskar lehen hezkuntzan hasi zirenean, Jess seigarren mailan zegoen eta denek zekiten harroputz hutsa zela. Jack ohartu zen Jess lagun talde berri batekin zegoela.

—Erakutsiezaguzu txilipurdiren bat —esan zion Jessek, eta gainerako hurrek barre egin zuten, eta ez oso modu adiskidetsuan—. Zergatik ez diguzu balleta dantzatzen irakasten? —Jessek irri zuriz ahoskatzen zuen “ballet” hitza, neska gaixoa barregarri uzteko.

Ile iluneko neskak bekozkoa jarrita begiratzen zien.

—Nik ez dut janzkera hau aukeratu —erantzun zien ausarki—. Balleta zabor hutsa da.

Jessicak barre egin zuen zakarki.

—Orduan, zaborrontzira bota beharko zaitugu.

Jackek zaborrontzi handi bat ikusi zuen bidearen ondoan. Ez zuen gogoratzen aurretik ikusi izana. Parkean egon ohi ziren zaborrontziak baino handiagoa zen. Neska-mutil taldea neska tutuduna inguratzen hasi zen, eta neskatoa zaborrontzi berrirantz bultzatzen.

—Aizue, utzi bakean! —esan zuen ahots batek. Egia esan, Jack bera harrituta zegoen, eta kezkatua ere bai, bere ahotsa baitzen oihuka ari zena!

Jessica jiratu, eta begira geratu zitzaion. Jackek kostata irentsi zuen listua. Jess seigarren mailan baino askoz ere handiagoa eta beldurgarriagoa iruditu zitzaion.

—Bestela, zer? —galdetu zion doinu desafiatailearekin. Jessek pauso batzuk egin zituen Jackengana. Bat-batean, burrunba hots

ezagun bat entzun zen.

Heli-frisbia lurrerantz

zetroren zilipurdika.

ZAPLA!

Tramankuluak

Jessen burua

jo, eta neska

ziplo erori

zen atzeraka,

sekulako oihua

eginez. Gainerako hurrek

barre egin zuten Jessek botatako

orroarekin.

Jackek urrutiko kontrola hartu, eta botoi bat sakatu zuen, oraingoan funtzionatuko zuelako esperantzarekin. Heli-frisbiak erantzun, eta airean hegaldatu zen berriro.

—Gehiago nahi al duzu? —galdetu zuen.

Heli-frisbiak istripuz jo zuen Jess, baina iruditu zitzaion hobe zuela deus ere ez esan, harroputz horrek jakin ez zezan.

